

## “Gozatzen dudan bitartean idazten jarraituko dut”


1982an Errenterian jaioa, gaur egun Bilboko auzotarra dugu Oier Santos. Heziketa Fisikoko irakaslea lanbidez, *Ez zuten erantzun* (Erein, 2012) eleberriarekin zapaldu du, lehendabiziko aldiz, euskal literaturaren plaza.

### Zerk bultzatu zintuen eleberria idaztera?

Orain urte batzuk, 2008an zehazki esanda, langabezian nengoela, goizak zer baitetan bete behar nituela pentsatu nuen. Korrika egitera joaten nintzenean, buruan biraka istorio bat nuen eta idaztea erabaki nuen. Behin hasi eta gozatzen nuela ikusita, atsegin handiz jarraitu nuen.

### Zure lehen obra izanik, zer kostatu zaizu gehien? Eta zer gutxien?

Agian, gehien kosta zitzaidana, zuzenketa prozesua, eta euskara xume bezain txukun batean berridaztea izan zen. Bestalde, gubxien kosta zitzaidana, istorioa idatzi eta egituratzea izan zen.



**HURRE-HURRETIK**  
OIER SANTOS

IRAITZ URKULO / BILBO

### Sei lagun unibertsitate garaian...

Seiko koadrila honi gertaera misteriotsu batek euren bizitza aldatuko die. Euren unibertsitate garaiko bizitza berria kontatzeaz gain, beste gertaera kate honetan oinarritzen da kontakizuna. Istorioa denboran atzera eta aurrera doa, modu honetan, badakizkigu gertaeraren ondorio eta aurrekariak, baina ez dugu gertaera ezagutzen. Gizakion kuxkuxero sen horri heldu nahi nion, irakurlea lotzeko.

### Arreta deitu dit eleberrian protagonista argirik ez topatzeak.

Protagonista argirik ez dago, ez. Lagun taldea da protagonista, bakoitza bere izaerarekin. Talde honen gorabeheretan oinarritu nahi nuen, bakoitzaren egoera azaltzeko. Hau da, garai berezi ho-

netan, unibertsitate aroaren hasieran alegia, bakoitzak bere moduan



bizi ohi du esperientzia bakoitza.

### Nola bizi izan duzu zure lehen Durangoko Azoka idazle bezala?

Egia esan behar badizut, lotsa ika-

ragarria pasa nuen. Elkarrizketa pare bat genituen eta hitz egitera abiatu nintzen. Konturatu orduko, Jon Arretxe edo Toti Martinez de Lezearen alboan bazkaltzen nengo. Ezer jakin gabe joan nintzen, eta idazle ezagunen artean nire burua ikustea arraroa egin zitzaidan. Bizipen bitxia zalantzarik gabe.

### Euskal literaturgintzan jarraitzeko asmorik duzu?

Horretan nabil, bai. 2008tik beste bi obra idatzi ditut. Bigarren istorioa komando ekologista terrorista baten ingurukoa da. Modu bitxian kontatua. Orain dela hilabete pareta bukatu nuena berriz, kirolaren inguruko istorioa da, maorien historiarekin bateratua. Hiru istorio ezberdin harreman bitxi batekin lotuta. Gustura idatzi ditut, eta gozatzen dudan bitartean jarraitzeko asmoa dut.

## INKESTA

Zer deritzozu Azkunak eta udal gobernuak Bilboko aurrekontuak %30 murrizteari?



**ARRATE**  
GURUTZE ALZOLA

Oso txarto iruditzen zait, gero eta okerrago goaz! Politikarien soldata murriztu behar da!



**ANA**  
OTXARKOAGA

Arlo sozio kulturean edota elkarrekin ematen den edozein murrizketa txarto iruditzen zait. Uste dut badirela beste "goi" arlo batzuk non murrizketak egin daitezkeen, baina ez dira ausartzen.



**MARKOS**  
OTXARKOAGA

Ez dago halako murrizketak egiteko beharrik. Eurak badakite nondik dendu eta gero diru hori espekulatzeko era biliko dute.



**GIL**  
OTXARKOAGA

...eta kulturaren, zehazki, %60koa izan da murrizketa!



**BEGOÑA**  
ERREKALDE

Oso txarto, emakumeok gero eta ez babestuago gaudelako eta argi dago diru gehiago inbertitu behar dutela.



**AINHOA**  
DEUSTO

Parekidetasuna lortzeko ezinbestekoa da diru la guntza horiek mantentzea, eta jendarte mailan, gauza bera, jendarte ez badugu kaltetu nahi, jendarte kohezioa mantentzeko eta parekidetasuna lortzeko.